



NAFARROA SUSPERTU REACTIVAR NAVARRA 2020-2023

AURRERABIDEA, KOHESIOA, BERRIKUNTZA.
PROGRESO, COHESIÓN, INNOVACIÓN.

2020-5-5

Agiri hau aldez aurreko ohar batzuek osatzen dute, planak izan beharreko oinarritzko egitura identifikatzeko. Ez da agiri itxia, ideiaritxura emateko agiri bat baizik, haren izaerari, dimentsioari eta egiturari norabidea emateko.

AURKIBIDEA

AURKEZPENA	3
MISIOA	6
IKUSPEGIA	6
BALIOAK	6
AGERTOKIA ETA EGOERAREN AZTERKETA	8
1.- Taula makroekonomikoa	10
2.- Enplegua eta Gizarte Segurantza	10
3.- Egindako jardueren memoria	11
4.-Nafarroa, Europar Batasuneko eskualde lehiakorra	20
5.-Berrikuntza, aurrera egiteko palanka	21
6.-Estrategia adimentsuaren zeregina eta beste estrategia batzuk	22
NAFARROAREN AMIA EGOERA IRTEERARI BEGIRA	23
JARDUKETA EREMU NAGUSIAK	25
HELBURU ESTRATEGIKOAK	28
GOBERNANTZA	30
PLANAREN ZUZENDARITZARAKO EGITURA	33
DISEINURAKO KRONOGRAMA	35
AGINTE-TAULARAKO GARAPEN ARDATZAK	37
PLANAREN FASEAK	39

AURKEZPENA

AURKEZPENA

Nazioartean, COVID-19ak eragindako pandemia desafio instituzional, politiko, ekonomiko eta sozial handiena da II. Mundu Gerraz geroztik. Nafarroarentzat eta Espainiarentzat, berriz, handiena Gerra Zibiletik hona.

Koronabirusa gure artean dagoela bizi beharko dugu luzaroan, eta, horrez gain, gure eredu sozial eta ekonomikoa jo du bete-betean, haren ezaugarriak aldatzeraino.

Gauzak horrela, beharrezkoa da botere publikoak egoerara egokitzea eta, gainera, oparotasunerako formula berrien sustatzaile ere bihurtzea. Aurrean dugun eredu berriak aurrekoarekin haustea ekarriko duten erantzunak eskatzen ditu. Aldaketa mamitsuak, iraunkorrak eta berritzaileak behar dira ekonomian nola gizartean. Krisi honen esperientziari esker ikasi egin dugu. Gureganatu dugun jakintza hori baliatu behar dugu modu kolektiboan hazteko, eredu produktibo eta sozial berriak helburu.

Plan bat izan baino lehen, halere, Nafarroako Gobernuak krisian abiatutako ekintzei buruzko memoria bat behar dugu, bai eta COVID-19aren pandemiak izan ditzakeen ondorioen gaineko diagnostiko bat ere.

Europako gure esparru instituzionalean politika publikoak birdiseinatzen hasi dira, oro har, eta prozesu horren urrats bat da pandemiaren ondorioak apaltzeko behar adinako baliabide sanitario eta sozial guztiak abian jartzea. Aldi berean, suspertze ekonomikoari ekiteko finantzabide malguak erabiltzearen aldeko apustua egiten da. Formula horiek orain lotzen ari dira.

Ikuspuntu horretatik, gure autogobernuak dituen baliabide berekiak indartu eta identifikatu behar ditu, Europar Batasunarekin eta Espainiako Gobernuarekin koordinatuta, lehiarako gaitasuna eta aberastasuna sustatzeko. Eta, horri esker, lan egin berdintasun falta eta arrakalak gutxitzeko, pentsatzekoa baita krisi honek areagotuko dituela, soldatena edo lurraldeen artekoa, kasu.

Politika publikoen eredu berri horretan dute oinarri planaren alde aurreko ohar hauek.

Gure helburua da aztertzea zer egoeratan gauden, eta gogoeta egitea ekintza posibleez eta egungo krisitik ateratzeaz, gizarte sendoago eta kohesionatuago baten aurrekari gisa. Kalitatezko ongizate estatu jasangarri bat bermatuko duten zerbitzu publikoekin. Inbertsio publikoak funtsezkoak izanen dira lurralde garapenari begira taxutu beharko den plangintza estrategikorako.

Nafarroan zenbait lurralde estrategia ditugu, eta horien guztien ardatza da inbertsio politikari laguntzea Nafarroak dituen lehentasunak, erronkak eta behar lehenak identifikatuz.

Indarguneak, lehiarako abantailak eta bikaintasunerako ahalmena baliatzen dituzte. Berrikuntza teknologikoa eta praktikan oinarritutakoa babesten

dituzte, eta sektore pribatuaren inbertsiorako pizgarria dira. Partaideen inplikazio osoa lortzen dute eta berrikuntza eta esperimazioa sustatzen dituzte. Ebidentzian oinarritzen dira eta gainbegiratzeko eta ebaluatzeko sistema sendoak sartzen dituzte.

Une honetan, krisialditik ateratzeko bidea adimen kolektibotik, denon konpromisotik eta gizarte zibilaren ekarpenetik planteatzen ari garelarik, erantzunkidetasun eta parte-hartze handiagoak dituen eredu bat finkatzeko desafioa eta aukera dugu; horrekin batera, gaintitu egin beharko ditugu tentazio populistak, are autoritarioak ere, une honetan dugun salbuespen egoera dela-eta azaleratzen edo biziagotzen ari direnak.

Gobernantza publikorako eredu berriz pentsatzeko aukera dugu, eta lidergo berrietarantz jotzekoa, beste balio eta jokabide batzuekin. Kalitate demokratikoa eta herritarren parte-hartzea sustatzea.

Izatekotan ere, Gobernu honek 2030 Agendarekin duen konpromisoak indarrean dirau, lehen bezain tinko.

MISIOA, IKUSPEGIA ETA BALIOAK

MISIOA

Nafarroa suspertzeko planaren misioa da krisialdi honetatik kementsu irteteko tresna publiko eta pribatu guztiak bultzatu eta koordinatzea. Hazkunderako, berrikuntzarako, berdintasunerako eta ekitaterako oinarri berriak behar ditugu, desberdintasunak areagotzeko arriskua baitago, atzean inor ez uzteko.

IKUSPEGIA

Gizarte erresilienteagoa, batuagoa, solidarioagoa. Ekonomia eta gizarte berriak, konektatuagoak eta humanoagoak. Aurreratzeko gaitasun handiagoarekin eta, aldi berean, ustekabeko erronkei aurre egiteko ere malgutasun handiagoarekin. Gaitasun eta lehiakortasun eredu berri bat.

BALIOAK

Gizarte indartsu baten aldeko apustua egiten da, denon ondasuna indartzeko. Gizarte osoaren bitarteko guztien inplikazioa denon ahaleginaren eta interes orokorraren inguruan. Konpromiso publikoa-pribatua-soziala, programaren ildo nagusi gisa.

AGERTOKIA ETA EGOERAREN AZTERKETA

AGERTOKIA ETA EGOERAREN AZTERKETA

Krisiaren tamaina eta egiazko ondorioak aztertu eta ikertu gabe badaude ere, aurreikusten da ikaragarriko inpaktua izanen duela gure bizitzaren alderdi guztietan, bai gutako bakoitzarentzat bai kolektiboki.

Krisitik sortzen ari dira dagoeneko gure ohituren aldaketak, behar berriak eta, halaber, aukera berriak.

Egoera berri hau hain aldakorra denez, **diagnostiko sakona behar da, kualitatiboa eta kuantitatiboa**. Horregatik, Errealitate Sozialaren Behatokiak parte hartu behar du diagnostikoa eta AMIA osatzen.

Halere, aurreratu dezakegu aldaketa horiek mota askotako alderdiei eragiten dietela: aisialditik eta harreman sozialetatik hasita jarduera ekonomikoraino edo eraikuntza ereduetaraino:

- Aldaketak **harreman sozialetan**
- Aldaketak komunitatearekiko harremanetan eta lankidetzazko lanaren eta lan boluntarioaren garrantzia
- Aldaketak **ingurumenarekiko** harremanetan eta klima aldaketaren gaineko inpaktua
- Aldaketa **landa eremuaren eta hiri eremuaren** arteko erlazioan eta paradigmaren balizko aldaketa
- Aldaketa eremu publikoen erabilera: kaleak, plazak, naturaguneak...
- Aldaketa **bizitokien eredu eta motetan**: gune ireki pribatuen (terrazak eta balkoiak) eta etxebizitza kolektiboaren garrantzia (adibidez, adinekoen egoitzak, ikasleenak...)
- Gure bizitzaren **online bertsio** berria sortzea. Teknologia berrien garrantzia, konektibitateari eta horiek eskuratzeari dagokionez, bai eta segurtasun zibernetikoarena ere
- Aldaketa **kontsumo ohituretan**. Paradoxa bat gertatzen ari da, batetik, tokiko produktua baloratzen delako, baina, aldi berean, saltoki txikien eta tokiko produktuen kontrako mehatxua handiagoa delako online salmentagatik
- Aldaketa **mugaz gaindiko harremanetan**, arlo oso desberdinetan eraginez: mugaz gaindiko langileak, larreak, aisialdia, kontsumoa, turismoa...
- Aldaketa ikuspegian, **hornidura sareek** balio-kateetan duten garrantziari dagokionez
- **Premiazko produktu berrien** identifikazioa
- Produktu estrategikoen **autohornikuntzarako** beharra
- **Jarduera ekonomikoa dibertsifikatzearen** garrantzia, bai landa eremuan bai hiri eremuan
- **Inpaktu desberdina** aldagai desberdinen arabera: generoa, gizarte klasea, adina, jatorria, bizilekua...

1. Taula makroekonomikoa

Aurtengo lehen hiruhilekoan, Nafarroako ekonomiak, aurreko urteko epe berarekin alderatuta, % -2,8ko jaitsiera izan du, alarma egoerak 15 egunez besterik eragin ez bazion ere. Aurreko hiruhilekoarekin alderatuta, berriz, jaitsiera % -4,1ekoa da.

Nabarmendu behar da datu ekonomiko negatiboak bigarren hiruhilekoan agertuko direla beren gordinen.

Jardueraren erritmoan gertatu den beherakada hau, aurrekaririk gabekoa, zor zaio gehienbat industrian eta merkatuko zerbitzuetan pandemiak izan duen eragin bereziari, eta neurri batean konpentsatu da merkatuko kanpoko dinamismoari esker.

Eskariaren aldetik, nabarmentzen da etheen kontsumoan eta inbertsioan kalkulatu den beherakada eta kanpoko eskariak garrantzi txikiagoa izanen duela esportazioen eta inportazioen jaitsieraren ondorioz.

Orain kalkulatzeko zaila denez, eta inpaktua modu egokian neurtzeko bide emanen duten adierazle gehiago izan arte, kontuan hartu behar da aurreikuspen hauek behin-behinekoak direla, eta taula makroekonomikoa argitaratzean baieztatuko edo aldatuko direla.

Deskonfinamendurako ezagutu ditugun epeak garrantzitsuak dira kalkulu horiei begira.

2. Enplegua eta Gizarte Segurantza

Erregistratutako langabeziari dagokionez, apirilaren 29an 40.369 langabe zeuden erregistratuta Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoan (SEPE). Beraz, otsaileko azken eguneko datu ofizialarekin alderatuta, 6.394 langabe gehiago daude orain. Ehunekoetan adierazita, %18,8ko igoera gertatu da. Alde horretatik, komeni da gogoratzea aldi baterako enplegu erregulazioan daudenak ez direla erregistratutako langabetzat hartzen.

Langabeziaren inpaktuari dagokionez, 2008ko krisialdiko pautetako batzuk errepikatzen dira. Adibidez, aldi baterako langileak izan dira lehen kaltetuak. Eta duela hamabi urte gertatu zen bezala, langabeen artean gehiago dira gizonezkoak. Kontuan hartu behar da emakume gehiago daudela funtsezko jarduera deitutakoetan. Beste alde batetik, gazteen artean aldi baterako enplegu gehiago egoten denez, 35 urtetik beherako gazte langabeen kopuruak gora egin du.

Gizarte Segurantzaren afiliazioaren bidez neurtzen den enpleguaren

bilakaerari dagokionez, azken datu ofizialek, martxokoek, adierazten zuten afiliazioak %0,6ko jaitsiera izan zuela hilabetean, hau da, 1.859 afiliazio gutxiago.

Edonola ere, martxoaren 11tik 31ra bitarte gertatutakoa aintzat hartuz gero, 8.000 mila enplegu pasa suntsitu ziren. Kopuru hori historikoa da tamainagatik, jatorrian dagoen arrazoiagatik eta gertatu den denbora epe laburragatik.

Beste alde batetik, alarma egoeraz geroztik eta hilabete pasatxoan aldi baterako enplegu erregulazioko 6.595 espediente erregistratu dira, 55.486 langileri eragin dietenak. Horietatik %93,6 ezinbesteko arrazoiak eragindako ABEEak dira (6.173), martxoaren 17ko Errege Dekretuak prestazioak estaltzeko ezartzen duen kasua. Martxoaren 14tik hona aurkeztutako espedienteen kopurua aurreko krisi ekonomikoaren urterik txarreanean (2012) erregistratutakoa halako sei da.

Gogoratu behar da urte honen hasieran Elkarrizketa Sozialerako Kontseiluak onartu zuela Enplegu Plan baten negoziatorako bide-orria. Agertoki hori eguneratu eta egungo planaren esparruan kokatu beharko da.

3. Egindako jardueren memoria

Nafarroako Gobernua arlo honetan egiten ari den ekintzak oso dinamikoak dira eta koordinatuta daude estatuan ezarri direnekin. Horren erakusgarri, hona batzuk:

1. Osasun eta gizarte neurriak

1.1. Osasun neurriak

1.1.1. Presako osasun neurriak, alarma egoeran hartutakoak

1.1.1.1. Osasun Sistema:

- Koronabirusaren balizko sintomen aurrean jarduteko protokoloa (03/20 03/21 PO)
- Osasun Departamentuak Nafarroako osasun sistemaren kudeaketa egin du Nafarroako osasun sistema publiko eta pribatuaren koordinazio exekutiboaren bidez (03/23 PO)
- Ospitaleko laguntza:
 - Profesionalen taldeak berrantolatu dira eta behar asistentzialetara egokitzeko neurriak ezarri (03/24 04/6 PO)
 - Ospitalez kanpoko larrialdietako zerbitzuetan laguntza emateko bi zirkuitu sortu dira, bata arnas aparatuko gaitzetarako eta bestea gainerako patologietarako (03/21 PO)
 - Koronabirusaren pazientearen zainketan hartu beharreko erabaki etikoen gaineko aholku batzordea sortu da (03/28 PO)
 - Nafarroako Ospitaleguneko Psikiatria Zerbitzuak laguntza eman die COVID-19arekin ospitaleratutako pazienteei eta haien senitartekoei (04/2 PO)

- Koronabirusean positibo emandako pazienteak hoteletara eraman dira bakartuta jarrai dezaten, etxean horretarako baldintza segururik ez bazuten. (3/28, 04/1 PO)
- Hotelak egokitu dira jarduneko osasun profesionalentzat, atsedean hartzen laguntzeko, eta positibo emandako osasun profesionalak sendatzen laguntzeko. (04/1 PO)
- Laguntza psikologikoa eman zaie osasun arloko profesionali. (04/2 PO)
- Oinarritzko Osasun Laguntza:
 - Profesionalen taldeak berrantolatu dira eta behar asistentzialetara egokitzeko neurriak ezarri (03/24 PO)
- COVID-19rako detekzio eta babes neurriak hartu dira, PCR probak, antigorputzen testa eta test azkarrak (04/8, 04/13 PO)
- Material medikoa banatu da:
 - 146.000 maskara, Gobernuaren Ordezkaritzarekin eta Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioarekin koordinatuta (04/13 PO)
 - 1.000 maskara Iruñerriko eta Tuterako hiri garraioaren kontzesioa duten enpresei (04/13 PO)

1.1.1.2 Laneko Arriskuen Prebentzioa:

- Nafarroako Laneko Arriskuen Prebentzio zerbitzu guztien koordinazio exekutiboa egin du Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuak (3/2020 FLD, apirilaren 15koa) (04/15 PO)
- NOPLOIko Lan Osasunaren Zerbitzuak aholku eman die enpresei prebentzio neurrien aplikazioari buruz, Laneko Ikuskatzaitzaren laguntzaz (04/13 PO)
- NOPLOIko Osasun Eskolak, ikerketa zientifikoetan eta estatuko nahiz nazioarteko erakundeen eta instituzioen irizpideetan oinarrituta, gomendioak argitaratu ditu pertsona ahulenen osasunari eta ongizateari laguntzeko. (04/11 PO)

1.2. Ahulenak babesteko neurri sozialak

1.2.1. Enplegua

- Aldi baterako enplegu erregulazioko espedienteen tramitazioa (ABEE): 6.595 espediente, 55.486 langileri eragiten dietenak. (04/20 PO)
- Beste neurri batzuk:
 - Autokontsumo fotovoltaiakoari buruzko online saioak (04/20 PO)
 - “Enplegua bilatzen laguntzeko Programaren” epea luzatu da (04/18 PO)

1.2.2. Gizarte babesa

1.2.2.1. Adinekoen eta desgaitasuna dutenen egoitzak

- Adinekoen egoitzetarako langileak kontratatu dira eta babes materialaren horniketa egin da (04/7 PO)
- Adinekoen eta desgaitasuna dutenen egoitzetako egoiliarrei eta langileei test diagnostikoak egin zaizkie gaitza detektatzeko (04/7, 04/12 eta 04/13 PO)

- Adinekoei arreta ematen laguntzeko lau zentro egokitu dira egoitzetako espazioak berrantolatzeko eta positiboen bakartze egokia egiteko (04/06, 04/14 PO)
- Koordinazio Asistentzial Exekutiboa egin da adinekoen egoitzetan (DL 3/2020 FLD, apirilaren 15ekoa) (04/15 PO)

1.2.2.2. Genero indarkeriaren biktimak

- Genero indarkeriaren biktimei harrera egiteko baliabideak indartu dira eta herritarren kontzientziaziorako informazio kanpaina bat egin (03/21, 04/7 PO)

1.2.2.3. Beste talde ahul batzuk

- Alerta informatiboak zabaldu dira migratzaileentzat sare sozialen bidez, bederatzi hizkuntzatan
- Elikagaiak eskuratzeko zailtasunak dituzten pertsonak identifikatu dira eta arazo ekonomiko larriak dituzten familiei elikagaiak banatzeko programa berriazko bat bete da (Eskubide Sozialak eta Gurutze Gorria), jantokiko bekak jasotzen dituztenak barne (04/04 eta 04/16 PO)
- Egoera sozial ahulean egon eta COVID-19an positibo eman dutenei arreta eman zaie Printzearen Gotorlekua Gazteen Egoitzan, Gurutze Gorriaren laguntzaz. (04/16 PO)
- Hondakinen Partzuergoak 24.000 poltsa eta ontzi berrerabilgarri eman dizkio dohaintzan Tuterako Villa Javier jantoki sozialari (04/14 PO)

1.2.2.4. Oinarrizko gizarte zerbitzuak

- Oinarrizko gizarte zerbitzuen ohiz kanpoko finantzaketa (3/2020 FLD, apirilaren 15ekoa) (04/15 PO)

1.2.3. Etxebizitza

- Alokairurako laguntzen programa, EmanZipa, zabaldu da martxoaren 14tik aurrera langabezian gelditu diren guztientzat, adina izan gabe horretarako muga (7/2020 FL, apirilaren 6koa) (03/25 PO)
- DaVid programa zabaldu da familia-unitate ahul guztietara, haien kargura adingabeak ez izan arren eta eroldan izena emanda urtebete baino gutxiago badute ere (7/2020 FL, apirilaren 6koa) (03/25 PO)
- Maizterrek, banakoak nahiz familiak izan, alokairua ordaintzeko jasotzen dituzten dirulaguntzak handitu dira errentaren %75eraino (7/2020 FL, apirilaren 6koa) (03/25 PO)
- Alokairuaren errenta ordaintzeko barkamen partzialak edo luzapenak, hiru hilabetez, Nasuvinsak kudeatzen duen etxebizitza parke publikoaren maizterrei (04/7 PO)
- 32 etxebizitza egokitu dira hiru eraikinetan, pilatuta bizi diren eta egoera

ahulean dauden familia batzuen egoerari erantzuteko (04/7 PO)

2. Eragile ekonomikoentzako neurriak

2.1. Presako neurriak, alarma egoeran hartutakoak:

2.1.1. Langile autonomoentzako laguntzak (6/2020 FL):

· Zuzeneko laguntzak (04/15 PO) jarduerari uzteagatik (2.200 euro) edo fakturazioa gutxienez ere %30 murrizteagatik (700/800 euro)

2.1.2. Abalak ematea eta zerga arloko neurriak:

· Sodenak hitzarmenak izenpetu ditu Elkargirekin eta Sonagarrekin, enpresei eta autonomoei laguntzeko COVID-19ak sortutako egoeraren aurrean; banku finantzaketarako eragiketa berriei abalak ematea babesten du, guztira 100 milioi adinakoak (04/1 PO)

· Epeak eten edo luzatu dira autonomo eta enpresa txiki eta ertainen kasuan, PFEZaren ordainketa zatikatuak egiteko eta zenbait autolikidazio eta tributu-zorretarako, likidezia sortzearen (7/2020 FL, apirilaren 9koa) (03/25 PO)

2.1.3. Ekintza sektorialak:

2.1.3.1. Nekazaritza eta abeltzaintza

· NPEren ordainketa aurreratua, kontrol programak bukatu gabe; ordainketa sektorialak (PASVE, APICOLA, OPFH) urriaren 15etik aurrera, eta ekainaren 15era arte luzatu da NPE eskatzeko epea (04/8 PO)

· 3 milioi euroko laguntzak ardi aziendaren sektorerako eta bertako produktuaren kontsumorako kanpaina egin da (04/3, 04/8 PO)

· 10,1 milioi euroko berehalako ordainketa, Nafarroako Landa Garapeneko Planeko laguntzena, abian jarri dira bideak merkatuak erregulatzeko eta merkaturatzeko zirkuitu laburrak sustatzeko (04/3, 04/8 PO)

· Sarbide librerako ireki da AGROasesor, laboreen jarraipenerako plataforma (04/2 PO)

· Nekazaritzan eta abeltzaintzan kalteak eragiten dituzten ehiza espezieak kontrolatzeko neurriak ezarri dira:

- Untxien eta basurdeen kontrolerako baimenak (04/17 PO)
- Ehiza barrutietako zaindarien espezieen kontrola egin dute, eta Foruzaingoak ere jarduketa puntualak egin ditu

2.1.3.2. Industriaren sektorea

· Ohar informatibo bat argitaratu da martxoaren 29ko 20/2020 Errege Lege-dekretuaren aplikazioaz, lanean segi zezaketen manufaktura industriaren jarduerak zein ziren zehazteko (04/1 PO)

2.1.3.3. Turismoaren sektorea

- COVID-19a dela-eta aplikatutako neurriek turismoaren sektorean izanen zuten inpaktuari buruzko kontsultei erantzuna eman zaie (04/16 PO)
- Informazio praktiko eta eguneratua biltzen duen aldizkako buletina argitaratu da (04/16 PO)
- Turismoaren arloko komunitate birtualen bidezko komunikazioa (04/16 PO)

2.1.3.4. Merkataritzaren sektorea

- Hurbileko merkataritzari laguntza eman zaio online zerbitzua eta etxeko salmenta eskaintzeko (04/14 PO)

2.1.3.5. Garraioaren sektorea

- Hiriarteko bidaiari-garraio erregularren zerbitzuak, Foru Administrazioaren eskumenekoak direnak, egokitu dira (04/3 PO)

2.1.3.6. Kulturaren sektorea

- Lan mahaiak egin dira sektoreko eragile guztiekin eta txostenak eskatu zaizkio Nafarroako Kulturaren Behatokiari (04/16 PO)
- Herritarrentzako zerbitzu publikoa online emateko apustua, liburu elektronikoak, pelikulak eta beste material kultural batzuen mailegua eginez.
- Ikus-entzunezko funts bat abian jarri da, konfinamendua dokumentatzeko, herritarren parte-hartzearekin (04/21 PO)
- Jarraibideak eman dira ondare historikoko eraikinak COVID-19aren aurrean desinfektatzeko (04/22 PO)

2.1.3.7. Kirolaren sektorea

- Kirol arloko laguntza eta babes psikologikoa eman zaie kirolariei Kirol Ikerketa eta Medikuntza Zentroko profesionalen eskutik eta Miguel Indurain Fundazioaren eta Nafarroako Psikologia Elkargo Ofizialaren artean izenpetutako akordioaren bitartez

2.1.4 Ekimen berritzaileak eta ikerketakoak

- "COVID-19aren kontrako Berrikuntza eta Ekintzailtza Sariak". 2.000 euroko lau sari ezarri dira, COVID-19aren kontra borrokatzeko osasun ekimen berritzaileetarako (04/8 PO)
- 700.000 euroko zenbatekoa erabiliko da COVID-19aren kontrako ikerketa biomedikoko proiektuak finantzatzeko (3/2020 FLD) (04/17 PO)

2.1.5. Elkarrizketak eragile ekonomiko eta sozialekin

- Bilera egin da Nafarroako Enpresaburuen Konfederazioarekin (CEN), UGT, CCOO, ELA eta LAB sindikatuekin, eta Nafarroako Gizarte Ekonomien Enpresekin (ANEL) (03/20 PO)

- Bilerak egin dira nekazaritzaren eta nekazaritzako elikagaien sektoreko eragileekin Nekazaritzako Kontseiluaren Lantaldearen bidez (04/3 PO)

3. Baliabide publikoak

3.1. Laguntza publikoak eta ohiz kanpoko baliabideak

Atal honetan zenbatetsi beharko dira alerta aldian abian jarri diren neurriak, batetik, eta, bestetik, suspertze planerako planteatzen direnak.

3.1.1. Presako neurriak, alerta egoeran hartutakoak

- Kontingentzia funtsa:
 - Apirilaren 6ko 6/2020 Foru Legea, premiazko neurriak onesten dituen koronabirusaren osasun krisiak eragindako inpaktuari aurre egiteko: 130 milioiko kontingentzia funtsa, kredituetarako, enpresei abalak emateko, giza baliabide eta aurrekontu baliabide publikoetarako.

Kopuru nagusiak:

6 milioi, norbera babesteko ekipamenduak (NBEak) lehenbailehen erosteko

20 milioi, autonomoei zuzeneko laguntzak emateko

25 milioi, toki entitateen gastuei aurre egiteko ohiz kanpoko funts bat sortzeko

40 milioi, abalak eta antzeko bermeak emateko 30 milioi, maileguetarako

- Ohiz kanpoko funtsak:

- Apirilaren 8ko 8/2020 Foru Legea, zeinaren bidez 28,4 milioiko kreditu-gehirri bat ematen baita, erantzuteko COVID-19ak eragindako osasun publikoko arrazoiak direla-eta hartutako neurri berezi eta urgenteei ekarritako behar bereziei

- Apirilaren 8ko 9/2020 Foru Legea, zeinaren bidez 23,1 milioiko kreditu berezi bat ematen baita, erantzuteko COVID-19ak eragindako osasun publikoko arrazoiak direla-eta hartutako neurri berezi eta urgenteei ekarritako behar bereziei

- 14,2 milioi, zerbitzu eta prestazioetarako, adinekoei eta ahulenei arreta emateko (04/1 PO)

- Milioi bat, egoitzetako adinekoei arreta emateko; erdia Eskubide Sozialetako Departamentuak kontratatutako langileei dagokie (04/14 PO)

- 3 milioi, nekazaritzaren eta abeltzaintzaren sektorerako, eta LGParen 10,1 milioiren berehalako ordainketa (04/8 PO)
- 700.000 euroko zenbatekoa erabiliko da COVID-19aren kontrako ikerketa biomedikoko proiektuak finantzatzeko (3/2020 FLD) (04/17 PO)
- 300.000 euro, elikagaiak banatzeko elikagaiak eskuratzeko arazoak dituztenei (+ 200.000 euro, "Cruz Roja Responde" kanpainakoak)

3.1.2. Suspertze planean sartu beharreko neurriak:

- 2 milioi, langile espezializatuen baliabideetarako eta eskolaz kanpoko laguntza eta errefortzuetarako 2020-2021 ikasturtean (04/17 PO)

3.2. Zerbitzu publikoen egokitzapena

3.2.1. Presako neurriak, alerta egoeran hartutakoak

3.2.1.1. Hezkuntza

- Egoera ahulenean dauden ikasleen arrakala digitala murrizteko ekipo informatikoak erostea (04/3, 04/17 PO)
 - Curriculumaren berrantolaketa 2019-2020 ikasturteko hirugarren hiruhilekoa garatzeko eta 2020-2021 ikasturtea hasteko (04/15 PO)
 - Ikastetxeentzako jarraibideak 2019-2020 ikasturtea ixteko eta 2020-2021 ikasturtea hasteko (04/17 PO)
 - 2021era atzeratzea 2020ko ekainerako aurreikusitako deialdien oposizioaldia, Bigarren Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako irakasleena. Maisu-maistren kidegorako oposizioa 2022ra atzeratu da (03/30 PO)
 - Indarrrik gabe gelditu dira berariazko proiektu edo programak aztertu eta ezartzeko lanpostuak merezimendu lehiaketa bidez betetzeko deialdiak, otsailaren 25eko 28/2020 Ebazpenaren bidez onetsitakoak.
 - Unibertsitatera sartzeko ebaluazioaren data aldaketa (04/8 PO)
 - Bitarteko langileen zerrendak kudeatzeko erregulazioa (37/2020 FA) (04/9 PO)
 - Irakasleen plantillak prestatzeko lanak ekainera aurreratu dira (20/04 FA) (04/20 PO)
- #### **3.2.1.2. Unibertsitateak:**
- Ikasturtearen jarraipena unibertsitateetan, edukiak, gaitasunak eta ikasle guztien ebaluazioa bermatuz (04/2 PO)

3.2.1.3. Lana:

- COVID-19ak eragindako aldi baterako enplegu erregulazioko espedienteen tramitazioa azkarrago egiteko, 20 teknikari gehiago hasi dira lanean (03/27 PO)

3.2.1.4. Segurtasuna eta Babes Zibila:

- Larrialdietako Koordinazio Batzordea eratu da osasunaren eta eskubide sozialen arloko beharrei erantzuteko, Babes Zibilaren eta Larrialdietako Unitate Militarren bidez (04/6 PO)
- Segurtasunaren arloan, Foruzaingoak ibilgailuak eta pertsonak kontrolatu ditu (04/16 PO) Suhiltzaileek, 112 Zerbitzuak, Babes Zibilak eta boluntarioen entitateek laguntza eman diote osasun agintaritzari kutsapenak murrizteko eta COVID-19aren kontra lan egiteko (04/16 PO)
- Suhiltzaileek osasun ibilgailuak deskontaminatzeko guneak instalatu dituzte (03/28 PO)

3.2.1.5. Langileen arloa:

- Jarduera presentziala bertan behera gelditu da funtsezko zerbitzu publikoen kasuan izan ezik, eta telelanaren alde egin da. (54/2020 FA, 03/30 PO)

3.2.1.6. Kontratazio publikoa:

- Eritasunari aurre egiteko behar diren ondasunen kontrataziorako prozedura azkarrak (3/2020 FLD) (04/15 PO)

3.2.1.7 Neurriak dirulaguntzen arloan:

- Sektore publikoko entitateak tramitatzen ari ziren prozedura guztiak eten dira, bai eta diruz lagundutako jarduerak egiteko epeak ere; alarma egoera bukatzen denean hasiko dira berriz (3/2020 FLD) (04/15 PO)

3.2.1.8. Ogasuna:

- 2019ko Errenta Kanpainaren atzerapena (04/1 PO)

3.2.1.9. Toki Administrazioa:

- 25 milioiko funtsa, erantzuna emateko COVID-19aren krisia dela-eta toki entitateek izandako gastuak eragindako beharrei
- Arreta eman zaie Nafarroako toki entitateei, telefonoz eta posta elektronikoen bidez, koronabirusari buruzko zalantzak argitzeko (03/24 PO)
- Bi protokolo prestatu dira, toki entitateei laguntzeko zenbait jarraibiderekin, pertsonen kontsumorako ur horniduraren eta saneamenduaren kudeaketa modurik onenean egin dezaten (03/26 PO)

- Toki entitateentzako ohiko galdera-erantzunen gida (04/14 PO)
- Koronabirusaren aurrean kaleak garbitzeko irizpideak bateratzeko prozedura prestatu du NOPLOIk (03/21 PO)

3.2.1.10. Herritarren arreta:

- Indartu eta zentralizatu da telefonoz eta bide telematikotik ematen den arreta zerbitzua, koronabirusari buruzko osasunez kanpoko kontsultetarako (04/06 PO)
- COVID-19aren sintomen autoebaluaziorako aplikazioa telefono mugikorretarako (KoronaTest Nafarroa) (04/08 PO)
- Nafarroako herritarrek COVID-19az egiten dituzten galderei erantzuteko laguntzaile birtuala (04/10 PO)
- Web-orri berri bat argitaratu da, online proposamenak jasotzen dituen prestakuntzarako, aisialdirako, kulturarako, komunikaziorako eta administrazio elektronikoz baliatzeko (04/2 PO)
- Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren arreta telefonikorako linea gehiago jarri dira eta web bidez harremanetan jartzeko sistema erraztu da (03/30 PO)
- Justizia auzitegietan presentzia mugatu da kutsapenak ekiditeko, abian jarri da lan telematikoa, baina komunitateari funtsezko zerbitzuak ematea bermatuta betiere

3.2.1.11. Gazteria:

- Konfinamenduak gazteengan duen eraginari buruzko inkesta (04/7 PO)

3.2.1.12. Kanpo ekintza:

- Nafarroatik kanpo dauden nafar herritarrei arreta eman zaie eta laguntza deialdi bat egin da arazo ekonomikoak izan eta Nafarroara itzuli nahi dutenentzat (03/25 PO)
- Eskualdeetako Lantaldean eskatu da Europar Batasunak irmotasunez bultzatzea egin dezala COVID-19aren krisiaren kontrako borroka (04/8 PO)
- Akitania Berria-Euskadi-Nafarroa euroeskualdeak finantza neurri berriak hartzeko konpromisoa, COVID-19aren krisiaren ondorioak apaltzeko helburuarekin (04/8 PO)

3.2.2. Suspertze planean sartu beharreko neurriak:

3.2.2.1. Hezkuntza

- 2 milioi, langile espezializatuen baliabideetarako eta eskolaz kanpoko laguntza eta errefortzuetarako 2020-2021 ikasturtean (04/17 PO)

3.3. Boluntarioria

3.3.1. Boluntarioriazako ekintzak alarma egoerak irauten duen bitartean:

- Osasun babeserako jantziak egin dira Refenan, boluntarioen eta enpresen ekarpenei esker, Garapen Ekonomiko eta Enpresariareko Departamentuak koordinatuta, Erizainen Elkargoak horretarako egin zuen deiari erantzunez (04/3 PO)

Boluntarioen poltsak kudeatu dira “Nafarroa, orotan lagun” plataformaren bidez: eskolako laguntza, zaintza komunitarioa eta soziosanitarioa, zerbitzu informatikoak eta 3D inprimaketa, ibilgailuak eta makinak gidatzea, eta industriako ehungintza edo joskintza (03/19, 04/19 PO)

- Lan boluntario segururako gida

4. Nafarroa, Europar Batasuneko eskualde lehiakorra

Plan honek aukera eman behar digu toki hobea hartzen Europako lehiakortasunaren mapan, lurralde garapenerako eredu jasangarri eta integratzaile bati esker, zeinak Nafarroari barne kohesio hobea emanen baitio eta haren erresilientzia hobetuko baitu erronka global berriei aurre egiteko.

Europar Batasunak monitorizatzen dituen eskualde-lehiakortasunaren adierazleak ere hobetu behar dira. Adierazle horiek erakusten dutenez, hobekuntzarako tarte dago enpresen sofistikazioari eta aktibo ukiezinetan nahiz azpiegituretan egiten den inbertsioari dagokionez, bai eta enplegu teknologikoarekin eta teknologiaz kanpoko berrikuntzarekin lotutako zenbait alderdi handitzeari dagokionez ere.

2008ko krisi ekonomikoak, lehenik, eta, ondoren, klima larrialdiak biziagotu dituzte Nafarroan eredu ekonomikoa aldatu beharri buruzko debateak eta nazioarteko erreferenteen bilaketa, bertako estrategia sektorialak diseinatzen laguntzeko, Garapen Jasangarrirako 2030 Agendarekin eta Europar Batasunaren jarraibideekin bat datozenak betiere.

Alde horretatik, gero eta ozenago entzuten dira Europar COVID-19aren kontrako borroka eta klima aldaketa lotu behar direla dioten ahotsak, eta horretarako Europako Itun Berdea edo “European Green Deal” delakoa eskatzen dutenak, hau da, 2019aren bukaeran aurkeztu zen asmo handiko estrategia, 2050ean Europa klimaren aldetik neutroa eta alde sozialetik justua izateko asmoz.

Nafarroan, arlo sanitarioan, sozialean, ekonomikoan eta ingurumen arloan zeuden premia larrienei erantzuteko, azken urteetan taxutu diren tresna eta plan estrategikoen egokitzapenak aukera ematen digu erantzuna berehalakoa eta malgua izateko, eta, horri esker, koronabirusak eragindako krisiaren inpaktua murrizteko.

5. Berrikuntza, aurrera egiteko palanka

Berrikuntzarekin lotutako zutabeek bide ematen digute identifikatzeko ekonomia aurreratuetan balio erantsia sortzeari atxikitako alderdiak, hala nola, teknologia, ukiezinak edo berrikuntza. Horietan ikusten dugunez, batetik, Foru Komunitatea beheraxeago dago, guretzat erreferente diren eskualdeekin alderatuta, negozioen sofistikazioari dagokionez batez ere, zeren, zerbitzu aurreratuen sektoreak ez duenez garrantzia handirik, Nafarroako ekonomia atzeratuago baitago erreferentziako taldearekiko.

Alde positiboan, ordea, Nafarroa nabarmentzen da berrikuntzaren arloan; izan ere, COTECek eskualdeetako berrikuntzari buruz egindako azken txostenean jasotzen denez, Espainiako bigarren autonomia erkidegoa da Nafarroa, talentu berritzailearen potentzial handiena dutenen artean. Hain zuzen ere, berrikuntza da Foru Komunitatearen bereizgarri bat, ulertzen badugu berrikuntza dela prozesuen aldaketa oro, teknologikoa edo bestelakoa, ezagutzan oinarritua eta balio ekonomikoa eta soziala sortzen duena.

Foru Komunitateak berrikuntzaren aldeko apustu integrala egiten du. Gobernuan departamentu bat sortu da berrikuntza erabaki politikoen maila gorenean txertatzeko; finantzaketarako konpromiso gero eta handiagoa eta iraunkorra dago, alderdi politiko ia guztiek aho batez onetsitako lege batean jaso dena; eta zutabe izan da Espezializazio Adimentsurako Estrategia (S3) eraikitzean, berrikuntzako eragile guztiak biltzen dituen (unibertsitateak, zentro teknologikoak eta ikerketakoak, enpresetako I+G+b unitateak, besteak beste) enpreekin eta lan langileen ordezkariekin.

Hori zen gure abiapuntuko egoera osasun krisia hasi aurretik, zeinak, hazkunderako aurreikusitako parametroak aldatu baditu ere, ez baititu aldatu bete beharreko helburuak. Dagoeneko hemen dugun krisi ekonomikoaren abiapuntuan, zifra negatiboak dituen hazkundera ageri zaigu.

Horrela, BPGaren atzerakada handia espero dezakegu, Espainiakoa baino txikiagoa bada ere. Horrek zerga arloko diru-sarrerak txikiagoak ekarriko ditu, eta, horri gehituta, gastu handiagoa osasun arloan eta arlo sozialean. Beraz, kanpoko finantzaketaz baliatzea saihetsezina izanen da.

6. Estrategia adimentsuaren zeregina eta beste estrategia batzuk

Nafarroa suspertzeko ekarpen horien artean, berebiziko garrantzia du S3aren mundutik datorrenak. S3aren oinarrian dagoen eskualdeko eredu ekonomikoa Europar Batasunak babestu zuena da.

Orain arte egindakoak aitortzak jaso ditu Europan, eta hori garrantzitsua izan daiteke hemendik aurrera Europan, pandemiaren kontrako borrokan, definitzen has daitekeen finantza esparruari begira. Egia da, halere, Europako agertokia denez, esparrua aldatu eginen dela, kontuan hartuta eztabaida ireki dela berreraikitzeke tresna berriei buruz, Europar Batasunaren esparruan erabakitzen ari diren horiei buruz.

Nolanahi ere, adierazgarria da, klusterren bitartez garatzen den estrategia bat delako, publikoaren eta pribatuaren arteko lankidetzat bultzatzen duena. Jarraitu beharreko lan eredu da. Eta suspertze plan honen osagarri gisa aintzat hartzeko moduko balioa da. Gogoratu behar da arlo ekonomiko desberdinak biltzen dituela bere baitan, hala nola, elikagaien industria, osasuna, energia berriztagarriak, medikuntza pertsonalizatua edo ibilgailu elektrikoa. Horrez gain, plan honen helburu batzuekin lotuta dago: berrikuntza, ekonomia zirkularra edo digitalizazioa.

NAFARROAREN AMIA EGOERA IRTEERARI BEGIRA

NAFARROAREN AMIA EGOERA IRTEERARI BEGIRA

AMIA analisisian Nafarroak lurralde moduan irteerari begira dituen ahuleziak, mehatxuak, indarrak eta aukerak aztertzen dira. Indarrak eta ahuleziak berezko faktoreak dira, Nafarroak berak dituenak. Bestalde, aukerak eta mehatxuak kanpoko faktoreak dira, gaur egungo egoerari edo etorkizunekoari, gehiago edo gutxiago, eragiten diotenak. Horrelakoetan, honako hauek laburbildu ditugu:

INDARRAK

Gizarte kohesioa
Giza kapital prestatua Foru Araubidea
Kokapen geografikoa Europatik gertu Industria garapena
Ahalmen teknologiko indartsua:
Osasuna+Elikadura
katea+Mekatronika+Mugigarritasuna+Energia
Inbertsio handia I+G-n

AUKERAK

Kanpoan irudi positiboa. Nafarroa marka
Erreferenteak osasun sektorean
Akitania-Euskadi-Nafarroa euroeskualdea
Gizarte berrikuntza
Eredu europar berria

AHULEZIAK

Biztanleria zahartzen ari da Krispazio politikoa
Enpresa-dibertsifikazio txikia
Demografikoki pisu gutxi izatea
Start-up kopuru baxua urteko
Eskualdetik kanpoko talentua erakartzeko zailtasunak
Komunikazio azpiegiturak
Industria sofistikazio murrizta

MEHATXUAK

BPGaren beherakada eta diru-bilketa gutxitzea
Industrien deslokalizazioa
Populismoen igoera
Automobilaren industriaren zalantzezko etorkizuna
Esportazioaren murrizketa (ekonomia irekia)
Arrazakeria, gorrotoaren diskurtsoa eta aporofobia handitzea beharbada
EBren zalantzezko erantzuna

JARDUKETA EREMU NAGUSIAK

JARDUKETA EREMU NAGUSIAK

Departamentu bakoitzaren eskumenetatik abiaturik, Zuzendaritza Batzordeak balorazio osoa egingen du.

Gizarte babesa

Errentak birbanatzeko politikak ziurtatzea

Adinekoak edo behar bereziak dituztenak babestea

Beste kolektibo ahul batzuei arreta ematea eta pertsona guztientzako eskubideak

Adinekoen egoitzen ereduak berrikustea

Etxebizitzarako eskubide subjektiboa aitortzea

Zerbitzu publikoak

Sektore publikoa, berreraiki eta suspertzeko palanka

Gobernuak dituen hogeita hamar planetik gora koordinatzea eta berregokitzea

Administrazio Publikoa hobetzeko diagnostikoa eta proposamenak

Bizikidetzaren esparrua

Bizikidetzaren zibikorako jarduketaren programa garatzea

Boluntariora edo elkartasuneko lankidetzaren sareak koordinatzea hainbat esparrutan

Harreman sozialetarako, kontsumo azturetarako edo eremu publikoen erabilerarako modu berrietan berrikuntzak egitea

Suspertze ekonomikoa

Enpresa-ehun endogenoari laguntza ematea eta industria jakin batzuen ekoizpena birmoldatzea

Enpresa txiki eta ertainei, autonomoei, ekonomia sozialari, hurbileko merkataritzari eta abarri laguntzak ematea Konpromiso publikoa hartzea industria estrategikoekin

Zainketa pertsonalen ekonomia garatzea Etorkizuneko azpiegituretan, azpiegitura digitaletan eta lurreko azpiegituretan inbertitzea

Trantsizio energetikoa

Konpromisoa hartzea ekonomiaren eta hirien deskarbonizazioarekin eta Europako Green Dealarekin lerrokatzearekin

Klima aldaketara egokitzeko plan integrala

Alokairuzko etxebizitzarako eta eraikuntza jasangarrirako plana sustatzea

Ekonomia zirkularreko ekimenak garatzea

Lurraldearen garapen jasangarria

Nafarroako Lurralde Estrategia berrikustea

Landa eremuetan jarduera berpiztea eta lehen sektoreari laguntzak ematea

Gure nekazaritzako elikagaien katea eta 0 kilometroko estrategiak bultzatzea, eta tokiko produktua sustatzea

Turismo jasangarria, ekintzailtza berdea, merkataritzaren eta landa ingurunearen arteko lotura... bultzatzeko estrategiak berrikustea

Kanpo ekintza

Europako programa eta laguntzak monitorizatzea

Europar Batasunaren bultzada eta estrategietarako planekin lerrokatzea

Nafarroako enpresen nazioartekotzea laguntzea

HELBURU ESTRATEGIKOAK

HELBURU ESTRATEGIKOAK

Krisitik ateratzea eredu berri bat bideratuz.

Osasun krisiak geldiarazitako ekonomia suspertzea.

Berrikuntza tekniko eta soziala bultzatzea, enpresa mundua aldatzeko eta dibertsifikatzeko palanka moduan.

Ekonomia soziala eta kooperatiboa bultzatzea.

Hirugarren sektorea eta lankidetzazko ekonomia garatzea.

Gizarte erresilienteagoa bultzatzea lankidetzatik abiatuz.

Nazioarteko merkatu eta eskari berriak kontuan izatea.

Egin gabeko inbertsioak bultzatzea. Itun sozialetan eta enpresa-itunetan sakontzea.

Talentuaren sustapena.

Kultura bultzatzea kohesio eta ongizate sozialaren elementu giltzarri moduan.

Administrazioa eta sektore publikoa modernizatzea. Administrazioen arteko harremana eta lankidetzazko bultzatzea.

Osasun ekosistema eta helduei zaintzeko ekosistema indartzea.

Babes sozialerako sistemak sakontzea.

Nafarroa konektatua, kohesio digitalerako eta lurralde kohesiorako.

Lurraldea berronkatzea eta landa eremua baloratzea.

GOBERNANTZA

GOBERNANTZA

Planaren diseinu hau ongi gobernatzeko, beharrezkoa da Nafarroako gizarte zibila eta erakundeak bere osotasunean engaiatzea. Ikuspegi partekatua behar da izan. Era berean, herritarrek parte hartzeko prozesu arautu bat ezarri behar da, eta eredu ireki eta gardenak behar dira.

Europar Batasunak, plan estrategikoak diseinatzen dituenean, parte-hartzaileak eta gizartea, oro har, bultzatzen ditu elkarrekin lan egitera, ikuspegi partekatua erabiliz. Saiatzen da enpresa txikiak, ertainak eta handiak erlazionatzen, gobernantza maila batean baino gehiagotan sustatzen du eta, orobat, komunitatearen barnean kapital sortzaile eta soziala sortzen laguntzen du. Diseinu interaktiboa bilatzen da, kontsentsuan oinarritua.

Gobernuak ordezkari politiko eta sozialekin batera sortu behar du, *input* hobea eta erantzukizun partekatua lortzeko. Horretarako, eragileak identifikatu behar dira, bai egituratuta daudenak, bai egiturratu gabe daudenak. Lehenik eta behin, mapaketa eta trazabilitate soziala egin behar da. Gai izan behar dugu goraka datozen lider disruptiboak identifikatzen.

PLANA ANTOLATZEKO FAKTOREAK



ERANTZUKIZUN PARTEKATURAKO LEHEN MAPA

PARLAMENTUA

TOKI ENTITATEAK

UNIBERTSITATEAK

EZTABAIDA ETA
EZAGUTZARAKO
FOROAK

BERRIKUNTZA
SOZIALERAKO
ENTITATEAK

KOLEKTIBO
PROFESIONALAK

NAFARROAKO
UDAL ETA
KONTZEJUEK
FEDERAZIOA

UDALAK ETA
MANKOMUNITATEAK

TOKIKO EKINTZA
TALDEAK

TOKIKO
EKIMENAK

ENPRESA
ERAKUNDEAK

SINDIKATUAK

ZENTRO
TEKNOLOGIKOAK

ERAGILE
SEKTORIALAK

FORU
ADMINISTRATIOAREN
KONTSEILUAK ETA
KIDE ANITZEKO
ORGANOAK

ERAKUNDE ETA
TALDE SOZIALAK

PLANAREN ZUZENDARITZARAKO EGITURA

PLANAREN ZUZENDARITZARAKO EGITURA

Kogobernantzaren printzipiotik abiatu, hau da, erantzukizun partekatuetatik, zuzendaritza malguko egitura proposatzen da, posible eginen dituen, batetik, parte-hartze politiko eta soziala eta, bestetik, Gobernuaren ekimen eta exekuzioa.

Hori oro, kaudimen teknikit abiatuta. Egitura hori zehaztasun handiagoz erabaki eta zehaztuko da. Hori hala izanik ere, irizpide hauetatik abiatzen da:

1.- Zuzendaritza Batzordea.

Batzordekideak Nafarroako lehendakaria eta haren lehendakariordeak izanen dira.

2.- Koordinazio Publikoa.

Departamentuarterko Batzordea izanen da. Batzordeburu Nafarroako lehendakaria izanen da eta koordinazio-talde batek lagunduko dio. Bere eginkizunak dira politika publikoak koordinatzea eta lerrokatzea, baliabideen esleipena eta aurrekontuen onespina ziurtatzea, eta strategiaren jarraipena egitea, batez ere planei, estrategiei eta ekintza publikoei begira. Kontuan izanen dira departamentuetan gaur egun dauden partaidetza organoak.

3.- Gizarte Kontseilua.

Kontsultarako organoa da eta hartan parte hartzen dute politikariek, gizarteak, ezagutza-mundua eta enpresariek. Zabala, malgua eta askotarikoa da. Estrategia orokorraren gaineko hausnarketarako eta sormenerako eztabaida-esparrua da, ideiak eta proposamenak erazteko erabiltzen dena.

Erantzukizun partekatua eta osotasuneko ikuspegia bilatzen da.

Kontseiluaren osaera eta funtzionamendua zehaztuko da ahalik eta kontsentsurik handiena bilatzeko.

Gobernuko ordezkariak gainera, parlamentuko taldeak, Udal eta Kontzejuen Federazioak eta beste toki entitate batzuek hartuko dute parte. Enpresen ordezkariak ere kide izanen dira. Unibertsitateetako eta zentro teknologikoetako kideak ere izanen dira. Langileen ordezkariak ere bai, sindikatu etako kideak, alegia. Eta, bukatzeko, interes sozialeko erakundeak. Organo honetan gauzatzen da ikuspegi partekatuen kontzeptua, kontseiluko kideek estrategia abian jartzeko duten konpromisoaren bitartez.

4.- Laguntza teknikoa.

Gobernuak esleipen bat eginen du plana diseinatu, bete eta ebaluatzen lan eta laguntza teknikoa gauzatu dadin. Nafarroako enpresa-korporazio publikoa egokia da horretarako, Foru Komunitatearen Administrazioak osorik harpidetutako kapitaleko sozietatea baita eta haren eginkizunen artean baitago Nafarroako Gobernuari aholkularitza eta laguntza teknikoa ematea.

DISEINURAKO KRONOGRAMA

DISEINURAKO KRONOGRAMA

MAIATZA

Gobernuaren Erabakia, planarekin eta haren oinarriekin hasteko borondatea erakusten duena

Sozietate publikoari esleipena egitea plana diseinatu, idatzi eta betetzeko

MAIATZA

Diagnostikoa: memoria eta baliabideak

Plangintza

Egitura

Kontsultak

EKAINA

Planaren onespena

Plana gauzatzen hastea


AGINTE-TAULARAKO GARAPEN ARDATZAK

AGINTE-TAULARAKO GARAPEN ARDATZAK

Plana abian jartzeko, zenbait tresna diseinatu eta haiek monitorizatu behar dira, planari jarraipena egin eta hura ebaluatzeko.

Lehenik, planaren adierazleak diseinatu dira; lan kolektiboa izanen da, Nafarroako Gobernuko departamentuen eta kasuan kasuko sektoreetako eragile nagusiek elkarlanean gauzatuko dutena. Adierazlea ona bada, neurgarria, zehatza, sendoa eta sentikorra izanen da. Adierazleek ekintzak kuantifikatuko dituzte prozesuan, emaitzan eta inpaktuan zehar.

Aginte taula da monitorizazioan erabiliko den tresnetako bat eta adieraziko digu zein diren horien helburuak, adierazleak eta jomugak.



PLANAREN FASEAK

PLANAREN FASEAK

Hemen plana nola prestatuko den esaten bada ere, hiru fase bereizi behar dira: plana diseinatu eta prestatzea; plana inplementatzea, eta planari jarraipena egin eta baloratzea. Horretaz gainera, bada prozesu osoan zeharka eragiten duen beste elementu bat, komunikazio plana, alegia.

1. Plana prestatzea

2. Inplementazioa

3. Jarraipen eta balorazio fasea

4. Komunikaziorako eta jendaurrean jartzeko plana

1. PLANA PRESTATZEKO FASEA

1.1. Fase diagnostikoa

- Datuak, departamentuz departamentu
- Abian dauden plan guztien arduradunek banaka-banaka berrikustea
- AMIA
- Lortu nahi diren helburuak
- Proposamenak

Testuinguru berriari egokitutako oraingo proposamenak birformulatzea

Proposamen berriak, gaur egungo errealitatea dela-eta sortu direnak

1.2. Proposamenak egiteko plana

- Proposamen globala departamentuek egindako analisitik abiatuta
- Aipatutako hiru ardatz horien inguruko plan globala

2. INPLEMENTAZIO FASEA

Aurreko fasean proposatutako neurriak abian jartzea. Fase hau mailaz maila gauzatzen ahalko da, sektore- edo lurralde-esparruen arabera.

3. JARRAIPEN ETA BALORAZIO FASEA

Fase hau prozesu osoan zehar luzatuko da eta proposatutako neurrien ezarpenari eta inpaktuari jarraipena egiteko balioko du eta, beharrezkoa bada, zuzenketak sartzeko ere bai.

4. KOMUNIKAZIO PLANA

Plana gauzatzeko beharrezkoak dira barneko eta kanpoko komunikazio-baliabideak.

Baliabide horiek komunikazio plan batean landuko dira ikusgarritasuna, partaidetza eta gardentasuna posible egiten dituzten ekintzak erabiliz.